

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

BURGELUKO UDALA

2024-2025 ikasturterako euskara ikasteko diru-laguntza deialdiaren oinarriak

2024-2025 IKASTURTERAKO EUSKARA IKASTEKO DIRU-LAGUNTZA DEIALDIAREN OINARRIAK

1. Xedea

Deialdi honen xedea da 2024-2025 ikasturtean euskara ikasteko gastuak ordaintzen laguntzea, euskararen egoera normalizatzeko eta, bereziki, hizkuntza horren ezagutza eta erabilera handitzeko gure udalerrian.

Laguntza horiek jasota daude Burgeluko Udalak onetsitako Diru-laguntzen Plan Estrategikoan.

Oinarri hauek, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak arautuko dute deialdia eta Dirulaguntzak eta laguntzak ematea arautzen duen ordenantza orokorra (2020ko martxoaren 3eko 29. zenbakiko ALHAOn).

Oinarri hauek aipatzen dituzten diru-laguntzak printzipio hauek errespetatuta emango dira: publizitatea, gardentasuna, norgehiagoka, objektibotasuna, berdintasuna eta diskriminaziorik eza, eta, orobat, efikazia helburuak lortzeko orduan eta efizientzia baliabide publikoak esleitu eta erabiltzeko orduan, xede horretarako izapidetuko den prozeduran.

2. Pertsona onuradunak

Laguntza horiek eskatzeko honako betekizun hauek bete behar dira:

- Burgelu udalerrian erroldatuta egotea, bai ikasturte hasieran bai amaieran.
 - Izena ematean 16 urte baino gehiago edukitzea.
 - Indarreko xedapenek ezarritako zerga betebeharrak, Gizarte Segurantzarekikoak eta Burgeluko Udalarekikoak egunean edukitzea.
 - Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundeak (HABE) onartutako euskaltegiren batean matrikulatuta egotea.
 - Barnetegiren batean ikasiz gero, aurreko betekizuna betetzea. Kasu horretan, ikasketetarako baino ez da emango diru-laguntza; ostatua eta mantenua ikasleak ordainduko ditu.
 - Hautatutako ikastaroa, gutxienez, euskalduntze edo alfabetatze urrats baten parekoa izan behar da.
 - Gutxienez eskola orduen ehuneko 80ra joan behar da, edo ikastaroa gainditu.
- Pertsona bakoitzak egiten dituen ikastaro eta barnetegi adina beka eska ditzake (urria-otsaila, otsaila-ekaina, urria-ekaina, uda: uztaila-iraila eta barnetegiak).

3. Aurkeztu beharreko agiriak

Eskatzaileek agiri hauek aurkeztu behar dituzte:

- Udalak emandako eskabide ofiziala.
- Eskatzailearen Nortasun Agiriaren fotokopia.

c) Matrikula ordaindu dela egiaztatzen duen agiria, banketxeak emana.

d) Ikastaroaren ezaugarriak jakinarazten dituen euskaltegiaren agiria: ikasturtearen hasiera eta amaiera, asistentziari buruzko datuak, ikastaroa(k) gainditu izanaren akreditazioa... Barne-tegi batera joanez gero, euskaltegiaren ziurtagiria. Ziurtagiri horretan mantenu, ostatu eta irakaskuntza gastuak banan-banan zehaztuko dira.

e) Langabezian egonez gero, hori hala dela egiaztatzen duen agiri eguneratua.

f) Ikasturtean ikasketa ofizialen bat egin badu, horren egiaztagiria.

g) Beste erakunde batzuek emandako laguntzen zenbatekoa egiaztatzen duen agiria.

h) Zerga betebeharrak, Gizarte Segurantzarekikoak eta Burgeluko Udalarekikoak betetzen dituelako erantzukizunpeko adierazpena (eranskinean).

Erroldatuta egoteari, adinari eta udal honekiko zerga betebeharrak egunean izateari buruzko datuak ofizioz egiaztatuko dira.

4. Eskabideak non eta zein epetan aurkeztu behar diren

Eskabideak Burgeluko Udaleko erregistro orokorrean aurkeztu behar dira, edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 16.4 artikuluan aipatzen dituen lekuetako edozeinetan. Udal bulegoetan emandako inprimakia bete eta entregatu beharko da, 3. oinarrian aipatutako agiriekin batera, eta horretarako epea 2025eko urriaren 31n amaituko da.

5. Aurrekontu hornidura eta beken zenbatekoa

Deialdi honen babesean ematen diren laguntzak 2025eko ekitaldiko aurrekontu orokorreko 335.480.000 partidari ("Euskara - Ikasteko beka") egotziko zaizkio. Aurrekontu partida hori 2.000,00 euroko kredituaz hornituta dago.

Bekaren zenbatekoa honako irizpide hauen arabera zehaztuko da, betiere kontuan izanik partidaren esleitutako aurrekontu kredituaren muga:

a) Langabezian dauden pertsonak, edo 2024-2025 ikasturte osoan ikasketa ofizialak egin dituztenek, matrikularen zenbatekoaren ehuneko 90 jasoko dute. Gehienez ere hirurehun eta berrogeita hamar euro (350,00 euro) emango dira eskatzaile eta ikasturte bakoitzeko.

Langabezia partzialean dauden pertsonen kasuan, honako honi aplikatuko zaio matrikularen zenbatekoaren ehuneko 90i dagokion diru-laguntza: ikastaroaren ehuneko 60ri dagokion denbora baino luzaroago langabezian egon den eskatzaileari.

Gainerako kasuetan, langiletzat hartuko dira pertsona horiek.

Langabezia partzialean dauden pertsonak, baldin eta beren lanaldia hitzartutakoaren (40 ordu astean) ehuneko 40 baino txikiagoa bada, langabetutzat hartuko dira ondorio guztietarako.

Gainerako kasuetan, langiletzat hartuko dira pertsona horiek.

b) Langabezian ez dauden pertsonak edo langabetzat hartzen ez direnek (aurreko apartatuan adierazitako ehunekoen arabera) matrikularen zenbatekoaren ehuneko 50 jasoko dute. Gehienez ere hirurehun eta berrogeita hamar euro (350,00 euro) emango dira eskatzaile eta ikasturte bakoitzeko.

c) Baldin eta eskaera kopurua dela-eta laguntzen gehieneko zenbatekoak murriztu behar bada, partidako aurrekontu kreditura doitzeko, murrizketa proportzionala aplikatuko zaie eskatzaile guztiei.

6. Bateragarritasuna beste dirulaguntza edo laguntza batzuekin

Deialdi honetan jasotako laguntzak bateragarriak dira beste erakunde publiko edo pribatu batzuek xede horretarako bererako emandako beste batzuekin, betiere gain finantzaketarik eragiten ez badute.

Euskara ikasteko bestelako laguntza edo dirulaguntzak eskatzeko aukera izanez gero (Merkataritza Ganbera, HABE...), eskatu egin behar dira.

Onuradunak xede bererako beste dirulaguntza edo laguntzaren bat lortzen badu, Burgeluko Udalari jakinarazi behar dio. Beste laguntza batzuk jaso dituela eta horien zenbatekoa zein den jakin ondoren, udalak emango duen laguntzaren zenbatekoa zehazteko, jaso diren gainerako laguntzekin matrikularen kostuan zer defizit geratu den hartuko da kontuan.

7. Instrukzioa eta ebazpena

Euskara zerbitzua ematen duen teknikaria izango da organo izapidegilea, eta ofizioz egingo ditu ebazpen proposamenerako beharrezko jotzen dituen jarduera guztiak, datuak zehaztu, ezagutu eta egiaztatze, horien indarrez egin behar baita ebazpen proposamena.

Burgeluko Udaleko alkateak du diru-laguntzak emateko eskumena, frogagiriak aurkeztu ondoren; gero ordainduko da onartutako diru-laguntza osoa.

Eskaeren ebazpena gehienez ere hiru hilabeteren barruan emango da, eskaerak aurkezteko epea amaitzen denetik aurrera. Epe horretan berariazko ebazpenik ematen ez bada, eskaera ezetsizat joko da. Ebazpenak administrazio bidea agortuko du eta ebazpenean bertan adieraziko da zer errekurtso jar daitezkeen haren aurka. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 42. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren arabera jakinaraziko da ebazpena.

8. Onuradunen betebeharrak

Onuradunek betebeharrak hauek izango dituzte:

- a) Emandako laguntza onartzea eta eskatutako xederako erabiltzea.
- b) Eskatutako ikastaroa edo ikastaroak egin izana egiaztatzea, bai eta laguntza jasotzeko ezarri diren betekizunak eta baldintzak bete izana ere.
- c) Laguntzan eragina duten aldaketa edo gorabehera guztiak idatziz jakinaraztea Burgeluko Udalari (adibidez, beste erakunde batzuetatik jasotako diru-laguntzak).
- d) Burgeluko Udalak, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak eta beste erakunde eskudun batzuek eskatzen dituzten argibide guztiak ematea.
- e) Azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak, diru-laguntzenak, Aurrekontua Gauzatzeko Udal Arauak eta aplikatu beharreko gainerako araudiak dioena betetzea.

9. Diru-laguntza ordaintzea

Diru-laguntza eman izanaren ebazpena jakinarazi ondoren, diru-laguntza ordaintzeko izapideak hasiko dira, Aurrekontua Gauzatzeko Udal Arauan ezarritakoaren arabera.

10. Laguntza galtzea eta dirua itzultzeko prozedura

Onuradunek laguntza osoa edo zati bat gal dezakete, aurrez espedientea irekita, honako kasu hauetan:

- a) Daturen bat faltsutu bada eskaeran edota eskatutako agirietan.
- b) Laguntza erabili ez bada hura eman zen xede eta jardueretarako.
- c) Ezarritako betebeharren bat bete ez bada.

11. Errekurtsoak

Deialdi honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu ahal izango da zuzenean Gasteizko administrazioarekiko auzien epaitegietan, bi hilabeteko epean, ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; edo, bestela, aukerako berraztertze errekurtsoa deialdi hau onartu duen organoari berari, hilabeteko epean, ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; organo horren ebazpen espres edo presuntziozkoaren aurka, berriz, administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, Gasteizko administrazioarekiko auzien epaitegietan, bi hilabeteko epean, errekurtso ezesten duen ebazpena jakinarazten den egunaren hurrengotik aurrera, edo, ebazpena presuntziozkoa bada, sei hilabeteko epean, presuntziozko ebazpen hori gertatzen den egunaren hurrengotik aurrera.

12. Beste xedapen batzuk

Oinarri hauek interpretatzean zalantzarik sortzen bada, Burgeluko Udalak ebatziko du.

Elburgon, 2025eko urriaren 20an

Alkatea

NATIVIDAD LOPEZ DE MUNAIZ ALZOLA

ERANSKINA**ZERGA-BETEBEHARRAK, GIZARTE SEGURANTZAREKIKOAK ETA BURGELUKO UDALAREKIKOAK EGUNEAN IZATEAREN ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA**

..... jaun/andrea. IFZ zenbakia,
..... telefonoa eta helbidea duena,
gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasun osoarekin, bere izenean edo ondorengo ordezkarietan
jardunez,, IFZ zenbakia, eta
..... helbide fiskala duena, erantzukizunpeko adierazpen hau
egiten dut, honako hauek jasota:

Egunean ditudala indarreko xedapenek ezarritako zerga-betebeharrak, Gizarte Segurantzarekikoak eta Burgeluko Udalarekikoak, eta konpromisoa hartzen dudala egoera hori egiaztatzeko agiriak eta ziurtagiriak aurkeztuta justifikatzeko, hala eskatu bezain laster. Hala ere, baimena ematen diot udal horri ziurtagiri horiek zuzenean ofizioz lortzeko.

Eta jasota gera dadin eta ondorioak izan ditzan euskara ikasteko bekak emateko espedienteen (2024-2025 ikasturtea), adierazpen hau sinatzen dut Burgeluko Udalean.

2025eko ren(e) an.

Sinadura:.....

AYUNTAMIENTO DE ELBURGO
(ALAVA)BURGELUKO UDALA
(ARABA)

C.I.F.: P-0102200-C Avda Burgelu, 17 C.P.: 01192 ELBURGO Teléfono: 945 42 07 13 Fax 945 42 07 50

**EUSKARA IKASTEKO DIRU-LAGUNTZA
2024-2025 IKASTURTEA****ESKABIDEA**.....Jaun/Andreak
(izen/abizenak)

NAN.....

HELBIDEA.....

TELEFONOA.....

Eskatzen du:

Burgeluko Udalak 2024-2025 ikasturterako onartutako Euskara Ikasteko Diru-laguntza deialdian parte-hartzea.

Honako egoeran nago: ☐ Ikasten ☐ Langabezian ☐ LaneanBeste diru-laguntzak eskatu edo eskatuko dituzu? ☐ Bai ☐ Ez**GAINERATUTAKO DOKUMENTAZIOA**

- ☐ Nortasun Agiriaren kopia
- ☐ Matrikularen ordainagiria
- ☐ Euskaltegiaren ziurtagiria (oinarrietan eskatzen diren datuak jasotzen dituen)
- ☐ Langabe egonez gero, langabezian egondako aldiaren ziurtagiria
- ☐ Ikasten arituz gero 2022-23ikasturteko matrikula ziurtagiri ofiziala
- ☐ Beste erakundeengandik jasotako dirulaguntzei buruzko agiria

Ditu-laguntza onartzekotan diru sarrera egin ahal izateko kontu korrentea:

- TITULARRA.....
- TITULARRAREN
NANa.....
- BANKU-ERAKUNDEA.....
- KONTU ZENBAKIA

--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--

Burgelu, 2025ekoaren(e)an
Sinadura

AYUNTAMIENTO DE ELBURGO
(ALAVA)



BURGELUKO UDALA
(ARABA)

C.I.F.: P-0102200-C Avda Burgelu, 17 C.P.: 01192 ELBURGO Teléfono: 945 42 07 13 Fax 945 42 07 50

1. Baimena ematen diot Burgeluko Udalari beharrezkotzat jotzen dituen egiaztapenak egin ditzan, laguntza hau eskatzeko ematen ditudan datuak egiazkoak direla ziurtatzeko.
2. Burgeluko Udalak, Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa betez, jakinarazten du zuk ematen dizkiguzun datu pertsonalak erakunde horren titulartasuneko datu pertsonalen fitxategi automatizatuetan sartuko direla, eta fitxategi horien helburua udal-kudeaketari dagozkion zereginak egitea dela, bere eskumenen esparruan. Nahi izanez gero, datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta aurka egiteko eskubideak erabil ditzakezu Burgeluko Udaleko Udal Bulegoetara joz, helbide honetan: Burgelu etorbidea 17, 01192, Burgelu (Araba).
3. Baimena ematen diot Burgeluko Udalari HABEri eska diezaion erakunde honek euskara ikasteko nire prozesuari buruz duen informazioa.

1. Autorizo al Ayuntamiento de Elburgo a que realice las comprobaciones que considere necesarias con objeto de asegurar la veracidad de los datos que aporte para solicitar esta ayuda.
2. El Ayuntamiento de Elburgo, en cumplimiento de la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal, informa que los datos personales que Vd. nos proporciona serán incluidos en los ficheros automatizados de datos de carácter personal titularidad de esta entidad, cuya finalidad es la realización de tareas propias de la gestión municipal en el ámbito de sus competencias. Si lo desea puede ejercitar los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición dirigiéndose a las Oficinas Municipales del Ayuntamiento de Elburgo, en la siguiente dirección: Avda Burgelu 17, 01192, Elburgo (Araba).
3. Autorizo al Ayuntamiento de Elburgo a que solicite a HABE la información que este organismo dispone sobre mi proceso de aprendizaje de euskera.